

ZENBAT BURU
Martin Domingez

ERREPORTAJEA
Elgoibarko
Alkoholiko
Anonimoen
15. urteurrena

GEHIGARRIA
Zaharrak-berri

BARRREN

:300ko ekainaren 16a
VIII. urtea - 325. zkia

01 B A R




Alkoholiko Anonimoen 15. urteurrena

**Alkoholaren hatzamarretatik
ihes egin nahian**

koholak ez dio inori barkatzen" (Esaera zaharra)



Clinica Oftalmok5gica
RECALDE
Oftalmologi Klinika



Oftalmologia Orokorra

- . Kontsultak eta azterketak.
- . Glaukoma eta kataratak kentzeko operazioak.
- . Erretinaren gaitzen tratamendua.
- Larrialdiak.

Lasik sistemaren bidez Laser Exeimer-ez egindako zirugia errefraktiboa

Miopia, astigmatismoa eta hipermetropia kentzeko operazioak, azken berrikuntzekin (topografia korneal).

Kontaktologia. Lentillak

Espezializazio handiko lantaldeak era guztietako kontaktu-lenteak egokitzen ditu.

Zentro psikoteknikoa

Inongo tramiterik gabe, gidatzeko eta ehizarako baimenak lortuko dituzu.



RECALDE Oftalmologi Klinika

Plaza Barria, 2 - 2º - Tfnoa.: 943 20 18 44
20600 EIBAR (Gipuzkoa)
E-maila: clinicarecalde@sareneLes



MARTIN DOMINGEZ

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-blandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, herriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

4,000 eta piku asto erantzun baten bila

Iz da izango guztien kasua, baina batzuel gustatuko litzaiguke, beharra eduki ga, zergatik egiten ditugun hainbat gauza jakitea.

Asteburu honetan elgoibartar asko Sabiñanigora abiatuko gara. Ez goaz herria enlGutze-
ra edo hango biztanleen ohiturak ikertzera, larunbatean asmoa oso ezberdina izango da.

Urtero bezala, han antolatuko da Espainia osoko zikloturismo frogarik handiena. Aurten gainera, Miguel Induraini omenaldia egingo zaio.

Egun honetan dena ezberdina da Pirineotako ate horretan. Dendetan, kalean, Irratian nabaritzen da egun garrantzitsu bat iritsi dela. 12 milioiko aurrekontua, 4.000 zikloturista baino gehiago, 200 eta piku laguntzaile, ez dakit zenbat litro ur, beste horrenbeste janari, pastelitoak, fruta, freskagarriak, e.a.

Baina datu horietaz gain, zer da "Quebrantahuesos" bezala ezagutzen dugun froga hau. Esan dudan bezala Espainian antolatzen den frogarik handiena, gogorrena eta politena da. Nire ikuspuntutik, noski. 205 kilometro, 4 igotera, Somport (10 km.), Mari-Blanc (10 km.), Portalet (22 km.) eta La Hoz (2,5 km.). Eguraldia gure alde egoten ez bada, askoz gogorragoa izango da. Duela hiru urte bost gradu eskas eta euriarekin egin genuen eta orain dela bi urte, berriz, 35 eta 40 gradu arteko tenperatura zegoen.

Hain gogorra bada, zergatik goaz? Askotan

neure buruari galdera bera egin izan diot eta ez dakit zer erantzun. Gauza bakarra "satisfazio pertsonala" da. Froga amaitu ostean bi gauza ikusi ohi dira partehartzaileen aurpegietan. Bat nekea, noski, eta bigarrena, poza. Batzuk froga bukatu dutelako, eta postu on batean iritsi edo iazko postua hobetu dutelako, beste batzuk.

4.000 eta piko asto erantzun baten bila eta horien artean, 25 elgoibartar, gutxi gora-behera. Asto asko herri txiki batentzat, ezta? Ibilbidea berdina izan arren, ordea, asmoa ez da berdina.

Talde baten (nire taldea) lasterketako astoak sartuko nituen, ez baikara zaldiak izateko bezain onak. Gure asmoak lasterketa ona egin eta aunean ibiltzea dira (100 lehenen artean). Eta nahiz eta inork ez esan, Elgoibarko lehen aateratzea.

Beste talde baten prestatzeko hainbeste denbora ez dutenak daude edota asko entrenatzea nahi ez dutenak. Elgoibartar gehienak hemen sartuko nituzke. Asmoa beste urtetan baino hobeto ibiltzea da eta egun on bat pasatzea.

Azken taldea nire idoloak direnek osatzen dute. Nire idoloak bukatzera irtetzen dira, pulstometroa eta erlojua begiratu gabe. Hauen artean daude egiazko zikloturistak. Seguraski guk baino denbora gehiago beharko dute helmugara iristeko, baina iritsi ondoren, beraien poza nekea baino askoz ere handiagoa izango da. Anirno mutilak eta gora "Dimuno de Kalimotxo". Agur bero bat Elgoibarko zikloturista guztiei. Larunbata arte.

Asteburu honetan elgoibartar asko Sabiñanigora abiatuko gara. Ez goaz herria ezagutzera, asmoa oso ezberdina da.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

"zr 943 74 41 12

Publizitatea:

"z 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

www.ihardurucom/barren

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA Eli Aizpuru

KAZETARIAK Irati Agirreazaldegi,

Asier Orbea

PUBUZITATEA Andoitz Agirregomezkorta

MAKETATZAILEA Bea Ansola

ADMINISTRAZIOA Amaia Martin

GERENTZIA Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK Ainhoa Andonegi,

Aitor Argarate, Idoia Arozena,

Aitzol Arriola, Martin Dominguez,

Juanito Gorostiza,

Amaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,

Ion Loiola, Ongari Zine Kluba,

Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen,

Iban Urizar, Amaia Urzelai,

Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga

EUSKARA ZUZENTZAILEA Ibon Arriola

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 ale

LEGE GORDAILUA SS-1.038/92

ISSN 1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko

Jaurlaritzako

Kultura Sailak eta

Foru Aldundiak

diruz

lagundutako

aldizkaria.



*gizarte-ekintza
obra social*

44 DANOBAT

41 0011TI
GRUPO DANOBAT

Okerrak nrzendtrz

Pasa den asteko erreportaian (324. alea) Biar-Dana Elkartek ekainaren 25ean egingo duela anaiarteko bazkaria esan genizuen. Data hau oker zegoen, bazkaria UZTAILAREN 25ean izango baita.

Bestalde, 323. aleko baserriko gehigarrian, San Migelen baserriko lanetik bizi den baserri bakarra Sagarraga dela esan genizuen. Datu hau ez da guztiz zuzena, Zeleta baserrian ere baserriko lanetik bizi dira-eta, bakoitzari berea.

BARRENeKo eskutitzei buruzko araudia

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitanahiez:

1-Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.

2-Eskutitzak izen-abizenen inzialekin argitaratuko dira. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde-izena onartuko da. Ez dira `koadrila bat', `gazte bat' edo `iralcasle bat' bezalako formulak onartuko. Alabaina, onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: 'Ikastolako irakasleak' edo 'Urliaren lagunak'. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.

3-Gutun batean pertsonaren bat edo erakunderen bat salatzen denean, gutun-jabearen izen-abizenak bere osotasunean azaldu beharko du.

4-Pertsona edo erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.

5-Eskutitzen luzerari dagokionean, 25 lerro artekoak izango dute lehentasuna. Hortik gorakorik balego (35 lerrotik gorakorik ez da onartuko) lekua dagoenean bakarrik argitaratuko dugu.

6-Eskutitzak erredakziora iristen diren ordenean argitaratuko dira. Halere, BARRENeK gaurkotasunaren mesedetan ordena aldatzeko aukera izango du. Gaurkotasunak lehentasuna izango du beti.

7-BARRENeKo gutunetan ez dira onartuko:

*Biraoak

*Gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak.

*Buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko prestatutako idazkiak.

*Pertsona edo erakunde konkretuei zuzenduriko mehatxuak.

*

8-Ez dugu gaztelera datorren eskutitzik argitaratuko.

9-Eskutitzetan egon daitezkeen erruak (ortograftkoak, gramatikalak ...) zuzendu egingo ditugu. Halaber, izenbururik gabe datozen eskutitzei guk ipiniko diegu.

BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizuruk. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **Izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**

- Emakume batek honako kexa hau aditzera emateko eskatu digu: "Badira pare bat hilabete **Madalako pilen kontenedorea** apurru zenetik. Harrez gero pila guztiak lurrean sakabanatuta daude. Zerbait egin beharra dago".



- **San Rokeko ermitaren ondoko hobia** edo 'fosa' kendu duteia-eta, gazte bat etorri zaigu erredakziora. "Kotxearen aberiak edo autoa aztertzeke erabili ohi genuen, eta orain falta izugarria nabari dugu".



- Goian bego -



Loreto Mendikute
Aizpitarte

2000ko ekainaren 13an hil zen
87 urte zituela.



BAI, ESAN?



Charo Rojo

Osasun Zentroko emagina

Osakidetzak egindako azterketen arabera, Gipuzkoan 50 eta 64 urte bitarteko 1.000 emakumetik seik bularreko minbizia du. Bestalde, gaitza detektatzeko egin den programan %87 dira inolako sintomarik agertu ez dutenak. Guk gaitz honen inguruan zerbait gehiago jakiteko **Osasun Zentroko Charo Rojo** emaginarengana jo dugu.

- **Zerk eragiten du bularretako minbizia?** - Emakumeek 50 eta 64 urte bitartean hormonak galtzen dituzte, eta bon'ek bularreko minbizia eragin dezake. Beste eragileetako bat herentzia da, beti ere amaren aldetik jasotakoa. Familian norbaitek gaitza izan badu, emakume horien azterketetan arreta gehiago jartzen da.

- **Zein dira bularreko minbiziaren sintomak?** - Sintorna garbirik ez dago. Baina bulan'a ikutzean koskor bat dagoela igarri gero, Osasun Zentroko ginekologoarengana joatea komeni da. Dena den, bularreko koskor guztiak ez dira minbiziaren adierazgairi. Besapean ganglioak ere ager daitezke eta hori ere sintometako bat izan ohi da. Ondoren, ospitalean biopsia bat egiten da eta txan'a baldin bada, minbizia eragiten duten zelulak kendu, ongi garbitu eta kimioterapia sesioak jasotzen ditu gaisoak.

- **Osasun zentroan zein zerbitzu eskaintzen duzue?** Ginekologiako kontsultara datozenei erreferentzia modura izateko ekografia bana ateratzen diegu 40 urte dituztenean. Bestalde, menopausiako adinean dauden emakumei eta neska gazteei hitzaldi informatiboak ematen dizkiegu, eta horretarako ordua eskatu besterik ez da egin behan Menopausia dutenek sarritan hormona tratamenduak egiten dituzte eta horiek hartzen dituztenek badute arrisku puntu bat bulan-eko minbizia izateko. Horregatik, pertsona horiei urtero egiten dizkiegu azterketak. Dena den, Elgoibarren aurrean behintzat, ez da bularreko minbiziaren kasu nabamienik agertu.

Benetako euskaldun

jatorren kidea

beti erabili duzu

nekezko bidea

zuk ondo bete duzu

euskaldunen legea



EAKo alderdikideak

I 11 11 111111 I

Alkoholaren hatnmarretatik

Pasa den larunbatean, hilaren 10ean, Alkoholiko Anonimoen Nazioarteko Eguna ospatu zen mundu guztian. Orain dela 65 urte, Bill Wilson boltsako korredoreak eta Bob doktoreak sortu zuten elkarte hau New Yorken (Estatu Batuak). Elkarri arazoak kontatzen, edana alde batera laga zezaketela kon-

turatu ziren. Elgoibarko Alkoholiko Anonimoen Elkarteak 10 bat pertsonak sortu zuten 1985. urtean, San Juan bezperan, hain zuzen, Urte hauetako ibilbidea kontatuz diezaguten eta Alkoholak sortutako gaitzek gizartean bizirik darraitela gogora ekartzeko elkartearen kideekin bitz egin dugu.

Alkoholiko Anonimo Elkarteak Espainian izan zuen lehenengo Elkarteak Gipuzkoan sortu zen. Gaur egun 800 pertsona ingurura daude Gipuzkoako Elkartearen 40 taldetan banatuta. Elgoibarko Alkoholiko Anonimoen taldean, batzaz beste, 15-20 lagun batiwn clira astelehenem eta ostiralero Santa Klarak) konhentuan duela 15 urtetatik. Zaharrenak 37 urte ditu eta gazteenak, berriz, 28 urte. Hasieran emakume gehiago zeuden, baina orain hileretara gizonetako gehiago azaltzen direla esan digute,

Baldintza:

edaria uzteko desioa

Alkoholiko Anonimoetako kidea izateko ez dela inolako kuotarik ordaintzen, ez eta bileretara joaten direnen izenik hartu ere, anonimatoa sakratua da. Baldintza bakarra edaria uzteko desioa da. Alkoholarekiko daukaten ara-

zoa konpondu ahal izateko, beren esperientzia, sendotasuna eta itxaropena konpartitzen dituzten gionezkoen eta effillkumezkoen artean osatutako komunitate bat da. Elkartearen helburu nagusia alkoholaren menpekotasuna gainditu ez dutenei laguntza eskaintzen saiatzea da, hau da, sufritzen dagoenari laguntza ematea eta edan gabe egoten laguntzea.

12 pausoak

'12 pausoak' edan gabe bizi daitekeela erakusten duen katalogoa da. Lehen pausoa oso garrantzitsua da, alkoholaren erruz hizitzaren kontrola galdu dela onartzen baita. 4. pausoa, herriz, bakoitzak bere buruaren inbentario moral bat egitea da, gure akatsak onartu eta zergatik iritsi garen alkoholiko izatera hausnartzea, alegia. "Denon kontrario txarrena gure burua denez, alkoholikoa nintzela onartzea izugarritzko lasaitasuna izan zen" aipatu digu kide batek. "Bakoitzak dauzkagun beldurrak eta pekatuak aztertu ostian konturatu nintzan nere buruak ez nabala nik uste bezain ondo ezagutzen. Nere beldunak alkoholarekin tapatzen nituen koldar bat nintzen". Akatsak onantzea zaila bada, are zailagoa da besteetan aurrean onar-

tzeta. Hauxe da 5. pausoa, beste bati gure pekatuak kontatzea. Pauso hau emateko apaltasunik ez hatzela hadago, ez dago sobrietaterik. Norberaren buntakin lasai bizitzeko pausu hauek betetzea komeni dela aipatu digute. "Alkoholiko Anonimoetan ez dela milagrorik egiten, hakoitzak sortu behar du here milagroa. Dana clala, elkartearen sartzek beste hizipoz bat eman dit".

Elkartearen sartzeko arrazoiak

Inor ez da gogoz konna Alkoholiko Anonimoetan sartzen. "Guztiok gure borondatez gaude, haina borondate hori bizi izateko da nolabait esatearren. Izan ere, gehienontzat elkartearen gure azken aukera izan da, azken treneko azken hangoia, ale-

Inor ez dela edateari lagatzeko asmoarekin soilik sartzen, bizkar gainean ditugun arazo guztien pisuagatik baizik, etxeko arazoak, lanekoak...

Tabu eta aurritizlak

Oraindik 'tabu' eta aurritizki asko daude biltza gizaratean ahoz aho. Hori dela-eta,

"Jendea alkoholismoa gaixotasun bat dela mentalizatu behar da eta ez dela desohore bat gaixorik dagoenak sendatu nahi izatea".

alkoholismoa gaixotasun bat dela argi eta garbi euluki behar dela esan digute. "Jendea alkoholismoa gai-



es egin nahian



Santa Klarako konbentuan biltzen dira Alkoholiko Anonimoak astelehenetan eta ostiraletan. Elkarteko kide izateko baldintza bakarra alkohola lagatzeko desioa da.

xotasun hat clala mentalizau behar da eta ez dela desohore hat gaixorik dagoenak senclant nahi izatea, Aurriritzi eta beldur hauen erruz, askok uste baino alkoholiko gehiago daude inolako tmtarnendurik jaso gabe. Gazteen artean pentsamolcle irekiagoak nagusitzen ari diren arren. jende nagusi askorentzat, pertsona hizoiatsuak gara oraindik". Euskal Herriko tradizioek, txikiteoa eta antzerakoek, kalte egin dezaketela gaineratu digute, mostoa hotikan salclu hiharko litzake', .emn ezak ardo hat, eta antzerako esaldiak errotuta daude eta kalte hanclia egiten dute. Edan gahe barrerik ezin deza-kegda egin pentsatzen dugu askotan".

Bizi osorako gaixotasuna

Dena dela, inor ez dadila engaina, gaixotasun hau ez da sekula guztiz sendatzen, aiholikoa dena bizi osorako dela uste dute. "Horregatik izaten dira rekakiak, norhere huruarekin konridantza gebiegi hartzen denean. alegia. Berriz edaten hasiz gero, lehen baino okerrago buka dezakezu, ordea. Gure hurua ezagutzen genuela pentsatzea da egin dezakegun okenik handiena". Hala eta guztiz, elkartearen helbuntetako hat konfclantza izaten erakustea da. "zure buntarekin konfclantza lonuz gero. edozein tokitara joan zaitzke. Ni, adibidez, ez naiz tabernetatik ihesi ibiliko. Orain tabemetun sartzen naizenean nahi duclana e.ska dezaket eta lehen, aldiz, derrigortuta, ohituraz eskatzen nituen alkoholdun edariak.

NOLA JAKIN ALKOHOLIKOA NAIZEN?

Nofa jakin noiz menperatzen dudan alkohola edo noiz nagoen alkoholaren menpean? Galdera hauek ez daukate erantzun erraza, muga oso fina baita. Norberak bere buruari gafclatu, eta bakoitzak igani behar du naiz ezin duen edana kontrolatu, "hasieran gutariko askok ez genuen onartzen ezin genuela normalki edan. Azkenengo tragoak denoi egiten digu kalte, baina lehenengo tragoak noiz egiten digun kalte da atzeman beharrekoa. Lehenengoa edan ondoren planto egiten jakin izan banu, gaur egun ez nintzateke alkoholikoa izango. Lehenengo tragoak jartzen du dena marbcan eta alkoholak menperatu egiten zaitu". Dena dela, Alkoholiko Anonimoetan badute alkoholikoak atzematete metodo bat. Gaixotasunaren sintomak bakoitzak bere barnean bilatzea da gakoa. "Gure edateko era, eta honek gure eguneroko bizitzan duen eraginari buruzko galdera zehatzei erantzun jatorra eta zintzoa eman behar zaie".

"Lehenengo tragoak noiz egiten digun kalte da atzeman beharrekoa"

GALDEKETA

- 1- Saiatu al zara inoiz astebete (edo epe luzeagoa) edan gabe pasatzen, eta epea bukatu baino lehen berriz ere edaten hasi?
- 2- Haserretu egiten al zara inork ez edateko aholkuak ematen dizkizunean?
- 3- Saiatu al zara inoiz kontrolatzen, edariak aldatuz?
- 4- Azken urtean inoiz goizez edan al duzu?
- 5- Edan eta kalterik jasaten ez duten pertsonen inbidia al duzu?
- 6- Azken urtean zure arazoa handituz joan al da?
- 7- Zure edateko erak etxean arazoak sortu al dizkizu?
- 8- Edaria neurtua, mugatua dagoen bileretan, ahaleginak egiten al dituzu zurrut estrak lortzeko?
- 9- Nahiz eta garbi egon ezin duzula ecfaria kontrolatu, edateari nahi duzunean laga diezaiokezula esaten al diozu zure buruari?
- 10- Azken urtean zure lanari inoiz huts egin al diozu edateagatik?
- 11- Edaria dela-eta, inoiz izan al duzu hutsune-mentalik?
- 12- Inolz pentsatu al duzu zure bizitzan arrakasta handiago eduki zenezakeela edango ez bazenu?

4 EDO ERANTZUN GEMAGOM BMEZKOA EMANEZ GEMN MUR EGON ARAZO SERIO BAT DUZULA EDO LASTER IZANGO OUZULA.

Nornahik **ALKOHOLIKO ANONIMO ELKARTEA** rekin kontaktuan jarri nahi izanez gero, honako telefono hauetara dei dezake:
Santa Klarako konbentua Tel. 943 74 03 85
Irun Tel. 943 61 93 38
Bilbo Tel. 944 15 07 00 51


Sarritan jaiak eta alkohola batera doaz

Jaietan ongi pasa al daiteke alkoholik gabe?



MARIVI GONZALEZ
46 urte, dendaria

Bai, eta oso ongi gainera. 14 eta 18 urte bitarteko gazte-txoek badirudi alkoholik edaten ez badute ez daudela konforme. Zaharagoek argi dute ez dela beharrezkoa edatea.



JUAN ANGEL GARCIA
50 urte, administraria

Bai, baina jaiak beti lotu izan dira edariekin. Jendeak tabernetan elkartzeko ohitura izan du beti, eta jaietan martxa tabernetan efroten da.



JOSE ANTONIO PEREZ
50 urte, torneroa

Bai, dudarik gabe. Beti edan izan da eta txikiteoko ohitura ere oso errotua dago. Baina konpainia ona alkohola baino lagun hobea da jaietan ongi pasatzeko.



MARIBEL DEL RIVERO
47 urte, etxekoandrea

Bai. Lehen jaietan edan gabe ongi pasatzen genuen, musika eta antzerkia izaten ziren-eta. Baina jaiak asko aldatu dira eta orain jendeak beste ohitura batzuk ditu.



JOSE ANGEL IRIONDO
39 urte, espezialista

Nik uste dot baietz, baina zeozer beti eraten da. Bestela jaixak zer dia ba? Jaixak tabernekin lotuta daoz. Kontua, beti ere, tamainan eratia da.



JAIONE MANZIDOR
31 urte, harakina

Bai. Norbere girua ipintzen bada eta kuadrilan ibili, ondo pasau leike eran gabe. Gazte askok eitxen du hori eta ez dot uste jaietan gaizkio ibiltzen dianik.

Zure gorputzak 8 orduko atsedena behar du.
Zure begiek 24 orduko lasaitasuna.



Zure lasaitasuna da garrantzitsuena. Horregatik, **MultiOpticas** gure produktua etir zerbiztu bakoitzean kalitate eta garantiarik handiena emateko konpromisoa hartu dugu, Izan ere, zu gustura egofea nahiko genuke Espainiako optika-sarerik handieneka - **MultiOpticas** - profesionalengan konfiantza izan duzulako.

MULTIOPTICAS
MULTIOPTICA

ZERBITZU OPTIKOETAN 1.a

San Frantzisko, 21
Tel. 943 74 03 59

ELGOIBAR

Ostolazo, 7
Tel. 943 19 21 92


DEBA

liese AMSga afial Garate omendu zituzten "Biar-Dne" elayileapal 50a urteurreneko ospakizunean IVusika eta dantza jaialdia izan zen Kiroldegian

Biar-Dana'elkartekak musika eta dantza jaialdi batekin ospatu zuen bere 50. urteurrena, igandean, hilaren 11n. Musikazaleak, elkartearen deiar erantzunez, Kiroldegia joan ziren eta bertan Musika eta Dantza Fundazioak antolatutako saioarekin gozatu ahal izan zuten. Haritz Euskal Dantzari Taldearen agurraren ostean, Musikeskolako akordeoi orkestrak hiru pieza eskaini zituen. Ondoren Udal Txistulari Bandaren txanda izan zen eta gero Itxaropena abesbatzaren doinuak entzun ahal izan zituzten bertaratutakoek.

Omenaldia

Musikaren bidean geldiene bat egin eta omenaldiek hartu zuten lekua. `Biar-Dana' elkarteko pre-



Jose Arrillaga eta Juan Garate, `Biar-Dana' elkarteko sortzaileek ohorezko insigniak jaso zituzten Angel Fernandez de Jauregi, elkarteko lehendakariaren eskutik.

sidenteak, Angel Fernandez de Jauregi, jaialdian parte hartu zuten taldeetako ordezkariari oroigarri bana eman zien. Eta alkateak ere `Biar-Dana'ren urte Iuzetako lana eskertu zuen lehendakariari sari bat emanez. Ondoren, oraindik bizi diren Juan Garate eta Jose Arrillaga elkarteko sortzaileek

ohorezko intsignia jaso zuten egungo `Biar-Dana'ko lehendakariaren eskutik.

Musikak berriz lekua hartuz, Dultzaineroek, Txomin Mujikak `Biar-Dana' elkartearen omenez konposatutako doinua eskaini zuten, Kiroldegian elkartutako jendea hunkituz. Parrokiako abesbatzak bi euskal kantu abestu zituen. Ondoren, dultzaineroen taideak eta Haritz Dantza Taldeko partaideek, musika eta dantza bateratuz, saio ederra eskaini zuten. Jaialdiko azken saioaren ardura Udal Musika Bandak izan zuen. Bukaeran, talde guztiek batean Agur Jaunak abesti ezagunarekin agur esan zioten ospakizun berezi honi, `Biar-Dana' elkartekak beste horrenbeste urtean iraungo duen esperantzan.

D EGA IRAILEKO AZTERKETARAKO

Eskolak uztailean eta irailean
Matrikula euskaltegian bertan

D IRAKASKUNTZAKO 1. eta 2. PERFIL

D MA1LA GLIZTIAK

110551.1.E1(eta LANGIBETUE1(
 ATRIKULA ERDIA
 (UDALAREN I.AGOITZA2)



jek euskaltegia
Plaza txikia, 3
Tel. 943 74 13 32

IZENA EKAINAREN 28a AURRETIK ENIAN

• Euskara ikastaroak iIEK euskaRegian

Aurreko urteetan bezala, Elgoibarko AEK euskaltegiak matrikula zabalik du udan euskara ikasi nahi dutenentzat. Euskalduntze maila guztietako ikastaroez gain, irakaskuntzarako beharrezkoak diren perfak eta EGA azterketa prestatzeko eskolak ere emango dira. Langabetuek eta ikasleek matrikula erdia ordainduko dute, Udalaren laguntza izango dutelako. Matrikulatzeko azken eguna ekainaren 28a izango da. Argibide gehiago nahi izanez gero, pasatu AEK euskaltegitik (Plaza Txikia, 3) edo deitu 943 74 13 32 telefonora.

Elgoilrarko 27 elkarte eta erakundek harremanak euskara hutsean izateko konpromisoa hartu dute

Gurean Bai Hitzarmenak bultzatutako inizatiba honetan parte hartuko dute hitzarmeneko 20 elkartek eta Udaleko 7 departamentuk

Elgoibarko Izarrak eta Udalak martxan jarritako Gurean Bai hitzarmenaren baitan, beste urrats berri bat eman da, Euskarazko Harreman Sarea sortzearena, hain zuzen ere. Aurkezpena pasaden asteartean, hilaren 13an, egin zen Kultur Etxean. Sare honen bidez, elkarte eta erakundeetan euskararen erabilera normalizatu nahi da. 27 entitatek euren arteko ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz egiteko konpromisoa hartu dute eta horren emaitza da, hain zuzen ere, Euskarazko Harreman Sarea. Konpromisoa sinatu dutenak Gurean Bai hitzarmenaren barnean dauden 20 elkarte eta udaleko 7 departamentu izan dira. Udaleko Euskara zinegotziak adierazi zuenez "gure helburua epe luzean euskarazko harremanak taldeekin ezezik herritar



Gurean Baiko arduradunak eta Euskarazko Harreman Sareako partaideak aurkezpen ekitaldian.

guztiekin egin ahal izatea da". Aurrerantzean, elkarte eta erakunde hauek eguneroko funtzionamenduan euskara normaltasunez erabiliko dutela adierazi zuten aurkezpenean Gurean Bai hitzarmeneko arduradunek eta elkarteetako ordezkariak.

Giro onean ospatu zuten Sanmigeldarren beraien eguna



Sanmigeldarren eguna giro alaietan igaro zuten joan den igandean bailarako bizilagunek. Goizean auzotarren arteko pilota partiduan Eneko eta Fernando 22 eta 18 nagusitu ziren Xabier eta Asierrek osatutako bikotearen aurka. Ondoren, bazkaritan 130 lagun inguru elkartu ziren eta bazkal ostean omenaldiaren txanda etorri zen. Auzoko gaztetxoek aureskua

dantzatu zioten Iosu Mugerza sukaldariari eta ondoren hainbat sari ere jaso zituen. Besteak beste belautegitarrek bentako taberna hartu zuteneko erretratu zahar bat. Josuk berak ere sari bana eman zien Sagarragako Mariari eta garai batean sagardotegia izan zuen Manuelari. Eguna bertso eta trikitixa doinuekin amaitu zuten.



Urruzuno bailarako jaiak


Joan den larunbatean, hilaren 10ean, Urruzuno bailarako bizilagunek auzoko jaiak ospatu zituzten. Asteburuan jaigiroa nagusitu zen auzoan. Arratsaldeko 17:00etan txaplio hotsarekin hasi zituzten jaiak eta ondoren, auzoko lokalean meza izan zen Meza ostean, bertaratutakoek mokadutxo bana jateko aukera izan zuten, guztientzako pintxoak banatu baitzituzten. Trikiti doinuek erritmora dantzari eta kantuarituek aritu eta gero, gaztetxoek ere auzoko jaietan parte hartzeko parada aprobetxatu zuten beraientzako antolatutako jolasekin. Giro ederrean, igaro zituzten, beraz, Urruzunoko auzokideek bertako jaiak.



1950. urtean jaiotakoen bazkaria

Aurten 50 urte betetzen dituzten elgoibartarrek, mende erdia pasa dutela ospatzeko bazkaria egin zuten joan den larunbatean, hilak 10. Duela hamar urte ekin zioten egun berezi hori ospatzeari, eta aurten ere hutsik egin gabe ohiturati jarraipena eman diote. Guztira 120 elgoibartar elkartu ziren eta elizkizun, bazkari eta dantzaldiarekin ospatu zituzten baraien jaiotzako urrezko ezteiak. Bestalde, antolatzaileek adierazi digutenez, dirua sobratu zen eta afaria antolatzea erabaki dute. Hurrengo zita ekainaren 24an izango da. Bertara joateko izena San Bartolome kaleko 'La Boutique del Pan' okindegian eman behar da.

Bi ikasle elgoibartar ETB1eko likusgelai saioan izan ziren



Elgoibarko Ainhoa Cantos eta Jonatan Martin ikasle gazteek ETB 1 eko Ikusgela saioan hartu zuten parte. Udalekuei buruz hitz egiten aritu ziren eta programa aste honetan bertan bota dute. Asteazken goizean ikusteko aukerarik izan ez zenutenoi, bihar, larunbata, hilak 17, goizeko 11:30ean elgoibartarrek telebistan parte hartu zuteneko saioaren errepikapena botako dutela gogorarazi nahi dizuegu.



Ikastolaren Eguneko ospakizunak

Ikastolaren eguna ospatu zuten joan den zapatuan, hilaren 10ean. Gaztetxoek jolasean pasa zuten goiza eta gurasoek Ikastolako atea irekita izan zituzten ikastetxeko gelak bisitatzeko. Ikastolan bertan argazki zaharren erakusketa izan zen ikusgai eta GARE irratizaleen elkarteko kideek zein KOKOE komiki taldekoek beraien erakustaldia egin zuten. Eguerdian, lagun asko izan zen bazkadtan, eta bazkal ostean DBH 4ko ikasleei ikasturte amaierako diploma banatu zitzairen. Ikastolako gaztetxoek taideak entrenatu dituzten lagunek ere opari bana jaso zuten. Ikastolara joan zirenek dantzan amaitu zuten eguna giro alaian.



Udal Euskaltegikoak Hondarribiko Barnetegian

Elgoibarko Udal Euskaltegiko ikasleak eta irakasleak Hondarribiko barnetegian izan ziren maiatzaren amaieran. Debako euskaltegikoekin batera 22 laguneko taldea joan ziren bertara, eta ikasturtean ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izan zuten elkarrekin euskaraz hitz eginez. Asteburuan Irungo tximeleten museoa ikusi zuten; Hondarribiko alde zaharra bisitatu eta baita abesbatzen lehiaketa batekin gozatu ere. Ongi pasatzeko eta elkarrekin ikasteko aukera paregabea izan zuten ikasle eta irakasleek.

Santa Anatik Madalara bitartean beste bide bat egitea gemendatu dute

Bestalde, koskadun 7 zebrabide jarri nahi dituzte autoen abiadura gutxitzeko

Igoibarko trafikoa aztertzen ari da 'Leber' enpresa, eta Iehen fasea amaitu ostean, Santa Ana kaletik Madalara bitartean bide bikoitza jartzea egokia izango litzatekela adierazi du. Honela, herri barruko autoen joan-etorria arinduko litzateke.

Bidea Madalatik hasi eta inguru horretan eraikitzen ari diren etxeetako etorbideetik pasatuz, Bernardo Ezenarro kalera helduko litzateke, handik Santa Ana kalera joateko. Trafikoa ez litzateke San Frantzisko kaletik igaroko, beraz, trafiko azterketaren bigarren faseko emaitzek argituko dute bizilagunak nondik joango diren bertara eta zamalanak nola egingo diren.

San Rokera bidean errotonda

Bestalde, Trenbide kalea, Bernardo Ezenarro kalea eta San Rokerako aldapa elkartzeko diren lekuan biribilgune txiki bat jartzea ere proposatu dute. Proiektua aurrera eramanez gero, leku horretan ka-



Trenbide kalea eta Bernardo Ezenarro kalea elkartzeko diren lekuan errotonda jartzea gomendatzen dute proiektuan.

mioiek hainbat zailtasun izango litzateke, baina arazoak ebitatzeko zebrabide altxatu bat eta arrisku seinalea jarriko rateke.

Koskadun zebrabideak

zebrabide altxatu honetaz gain, oinezkoak kalean lasai ibiltzeko, henian horrelako beste hainbat pasabide jarriko

dituzte. Zebrabideak espaloien altueran jarriko dituzte, gidariak hauetara iristean abiadura gutxitu beharko du. Gainera, oinezkoak errazago ikusi ahal izango du. "Beharrezkoa da zebrabide hauek albo banatan aldatu bana izatea auto-gidariak abiadura jaisteko, baina era berean autoari inolako kalterik ez eragiteko", dio 'Leber' enpresaren txostenak. Elgoibarren guztira, 7 zebrabide altxatu jartzeko gomendioa egin du: Santa Ana kalean, Trenbide kalean (tren geltoki parean), Bernardo Ezenarron (San Rokeko aldaparen alboan), Pedro Migel Urruzuno eta Bernardo

Ezenarro kaleak elkartzeko diren lekuan, Pedro Migel Urruzunon (eskolaren parean) eta Ermuaranbiden.

Proposatutako irtenbideak aurrera eramanez gero, batetik trafikoa banatuta egongo litzateke, herri barruko auto trafikoa gutxituz; eta bestetik, oinezkoak ere lasaiago ibiltzeko aukera izango lukete.

Elgoibarko 23 auzotarren komunitatek IDebegesarren "Hobetu zure etxea, haprutik... eta illanpotik kamainarekiko interesa azaldu dute

Kontsultarik ohikoenak fatxada, teilatu eta igogailuei buruzkoak izan dira

iru hilabete pasa dira De. 1 IDebegesaren "Hobetu zure etxea, haprutik... eta kanpotik!" kanpaina hasi zenetik eta basierako etapen erantzun ona jaso duela adierazi digute Debegesako arduradunek. Guztira, 136 kontsulta jaso dituzte kanpainari buruzko informazioa eskatuz. Horietatik 29 Elgoibartik egindakoak izan dira, 23 auzotarren komunitatek egindakoak eta 6 partikularrek. Mendaron eskaera bakarra egin da. Eskaerarik ohikoenak fatxaden, teilatuen eta igogailuen ingurukoak izan dira. Informazioa jaso ostean jadanik martxan jarri dituzte berrikuntza



Erreka aldera begira dauden etxeen fatxadak margotuko dituzte.

lanak hainbat etxebizitzatan.

Elgoibarren erreka aldera begira dauden fatxaden konponketari eman diote lehentasuna.

Kanpainaren helburua herritaneiei etxebizitzak berritzeak dituen onurak azaltzea da, baita bizilagunei berritze lanak egiteko laguntza ekonomikoa ematea ere. Debegesaren zerbitzu honekin informazioa emateaz gain, dirulaguntzen gestioa ere egingo da, bai Eusko Jaurlaritzarekin, bai Udalekin eta baita finantza erakundeekin ere.

Kanpainak izan duen harrera ona ikusita, datorren urtera arte jarraitzea erabaki dute.



Juanita Rementeria berua gustatzen jakonantzat told ona da Torrevieja"

Juanita Rementeriak 76 urte ditu eta ia 25 urte dira bidaiari Alacantera joaten hasi zenetik. Lehenengo senarrarekin joaten zen Torrevejara, eta orain alaba han daukan aitzakian denboraldi luzeak igarotzen ditu Orihuelan, bertako klimaz eta hondartzetako giro ederraz gozatuz. Laster bertara joatekoa da eta alde egin baino lehen berarekin hizketalditxoa egiteko aprobe txatu dugu.

-r1017 h751711-!-H

- Oin dala 23 bat-edo, urte mordo bat. Lehen gizonakin juaten nintzan eta oin bakarrik.

uneail zenbat leku

- Beti Torrevejara jua izan naiz. Orihuelan dao nere alaba bizitzen eta beti hara ein ditxut biagia. Bestela biagatzia ez jata asko gustatzen, baina Elgoibartik kanpora egonaldi luziak eitxen ditxut Alacanten. Oin ere berriz juateko-tan nao, billetia hartu bihar dotela pentsatziak perezia ematen dia, biagia autobusian fuzia dalako.

"Oin dala 23 urte jun nitzan Torrevejara nere gizona zanakin"

Bai, etxe txiki bat hartu gendun, baina gizonak neguan Elgoibarrera bueltatzia nahi izaten zaban, hamengo lagunak, tertulixia... Han kostau eitxen da lagunak eitxia eta gainera bakoitzari beriak tiratu eitxen dio. Nik oin alaba han dakatenez errezaio eitxen dot hara bueltia.

-Inoiz pentsatu al duzu bertan bizi izaten qelditzea?

- Lehen pentsatzen naban betirako hara juateka esango balie zeozer emango liakela, baina oin ez dot halakorik uste. Hamen ez dakat

inor eta hara alabiakin bizitzera juatia pentsau dot. Gauzak ondo juango balia, urte batzuk barru han geratuko naiz.

ciuzu,

- Bai, plaiara juatia asko gustatzen jata, ordu asko ematen ditxut bertan. Hamen trena edo autobusa hartu bihar dozu plaiara juateko eta han sonbrilla eta sillia hartuta bertan za-oz. Gainera Elgoibartik urten, plaiaraino jua eta lainua topatzen da sarri, han beti egualdi ona eukitzen dou.

urzean iagun as

- Oindiok ez dot kanpoko jende asko ezautzen, baina lagun berrixak ein ditxut. Askok esaten die eurek baino jende gehixao ezautzen dotela eta baitxa tokixak ere. Plaian hamengo jende asko ibiltzen da, baina Orihuelan euskaldunik ez dao.

na?

Gehixena gustatzen jatana klimia da, eta pasiarako ere leku edarrak daude, palmera haundixekin, toki oso onak. Hamen negu hotza izan dala esan dabe, euri askokin, eta ibiltzera juateko beti guardasola-kin urten bihar etxetik, ze bestela egun guztian etxian zer eingo dau ni bezelako emakume batek bakarrik? Torrevejara, berriz, ez dot holako problemarik euki, beti kanpua ibili naiz.



Juanita Rementeria

-Zer esango zenioke jendeari zu ibiltzen zaren inguru hartara joateko?

- Jendea berua dauan lekura juateko beti eoten da prest, eta lehen ere esan dot Torrevejako klimia oso ona dala. Edade batetik aurrera tenperaturiak asko eitxen dau leku bat elejitzeko orduan. Beraz, egualdi berua gustuko dakanari esango nioke hara juateko ez dabala inungo kejarik eukiko alde horretatik behintzat.

"Edade batetik aurrera tenperaturiak asko eitxen dau leku bat elejitzeko orduan"

GAZTARO <O uROITZAPE\A

Ventura Agirregomezkorta

"Gaztetan ianian nuna hartu naban orduantxetik gaixorik eon naiz"

Ventura Agirregomezkorta San Pedro bailarako 'Aitzbizkar' baserrian jaio zen 1916ko uztailaren 14an. Gaztetan baserrian gogor jardun ostean, zerbitzari lanetan aritu zen hainbat etxetan. Gero min hartu eta oinaze askorekin gaixorik eman ditu gaur arteko urteak. Orain San Lazaro egoitzan bizi da, baina noizbait 'Aitzbizkar'era, bere jaiotetxera, itzultzeko ilusioa edo esperantza ez du galdu. Venturak, bere begi urdin dizdiratsuekin, gaztetako makina bat kontu kontatu dizkigu.



- Baserrian bizi izan zinen 16 urtera arte, ezta?

- Bai, Aitzbizkarren bizi izan nintzan. Ama Markina-Etxeberrikua zan, eta noizian behin hara bialtzen niuen amamagana. Ostantzian, ni etxian beti. Nere anaixa Pedro jaixo zanian 13 urte naukazen nik, eta umiak zaindu, keixak arbolan batu eta plazara ekarri... Esnia Eibarrera eruaten genduan kaballo gainian. Haura ez jatan asko gustatzen, baina ein bihar izaten zan.

- Gero zerbitzen aritu zinen halat

- Lehenengo Olasarteko palazivan eon nintzan 17 hilabetian eta handik Bergarara jua nintzan Otazuanera. Han oso gustorra eon nintzan, asko estimatzen niuen. Gero Eibarren Orbeanian ere zerbitzio lanak ein nitxuan. Gerrian aurretik 8 hilabete ein nitxuan han kozinera, josten, garbiketana... Han esan zien kozinera eskua nakala, eta zer zan ez banakixan ere, ilusiva ein zian.

- Asti askorik ez genduan eukitzen, ordu laurden bat ere ez ja-

ritxa eoteko. Domeketan bakarririk urtetzen genduan dantzara. Ni beti zeozer eitxen ibili bihar izaten nintzan. Baserritxik ere 13 urtekin gari batzera juten ginan San Pedro bailera.

- Orbeaneke etxean lan egiten zenuela jausi egin omen zinen.

- Tailarrian lan ein neikian, baina etxian nahixao zaben nik Orbeanian lan eitxia. Han nabilela Trinitade egun baten, mezetan izan eta beti antxitxika ibiltzekua nintzanez, eskilaretan jausi eta orduantxetik makalik hasi nintzan. 21 urte nakazen orduan eta oin ere sekulako minak eukitzen ditzuraz.

- Amari etxera juatia nahi nabala esan arren, Orbeaneke señoiak berak zainduko nivala esan zian. Piska bat mejorau nintzalakuan lanian segidu naban, baina egun baten esfuerzo txar bat ein eta lepazurra apurtu naban. Handik bi urtera-edo laga naban Orbeanekeuen etxia.

- Mediku asko bisitatutakoa nro err,R?

- Sekulako minak pasautakua

3et urte edo badia San Lazarora etorri nitzala eta desiatzen nao hemendik urten eta 'Aitzbizkar'era bueltatzeko"

VENTURA
AGIRREGOMF7KORTA

naiz ni. Bartzelonara jua nintzan ahiztiagana eta hango mediko batena eruan nivan. Oin ikusten dia futbolistak-eta mina hartuta, baina aguro saniatzen dia, lehenengotik operatzen ditzuelako.

urte dira

7nn

- Sei urte edo badia ixa eta desiatzen nao hemendik urten eta Aitzbizkarrera bueltatzeko han hiltzeko bada ere. Bitxartian minusbalidueri ematen jakuen la guntzia jasotziakin konformauko nintzake. Ni naiz Elgoibarren lanian inbalido geratu zan lehenenguetako emakumia.




Zein da zuretzat oporrak pasatzeko lekurik aproposena?

Udara gainean dugu, eta edadetu asko oporrak beste urte sasoi batzutan egin arren, eguraldi beroak etxetik kanpo egun batzuk igarotzeko animatu ohi du sarritan. Guk herriko edadetuek zein leku nahiago duten eta beraiek oporretarako aukeratuko luketen leku ideala zein den galdetu diegu. Biajea ezin izango diegu ordaindu, baina une batez beraien paradisuarekin amesteko aukera behintzat emango diegu.




Maria Martinez, 72 urte

Katalunia partera joango nintzateke gustura, ez naiz bertan sekula egon. Venezuelan daukat alaba eta bi aldiz joan naiz bertara, baina nahiko leku tristea iruditu zitzaidan oporretarako, arratsaldeko seietarako etxean egoten dira denak. Gainontzean hemen inguruan ibiltzen naiz beti.



Mendixa. Urte asko daruadaz kanpinera juten, baina laster laga ein biharko diot. Zurizako kanpinian eoten gera gu urtero kuadrila bat, Belagua onduan. Lehenao Picos de Europan ere ibilitxakua naiz. Oporretarako kanpina baino gauza edarraorik ez dao neretzako.



Santos Sth'chez, 77 urte

Mediterranea. Hemen ere badaude leku politak, baina eguraldiak ez du Iaguntzen, eta gainera, inguruko tokiak nahiko ongi ezagutzen ditugu. Orain, urrian, berriz oporretara joateko asmoa daukat. Urte guztian hemen egon ondoren, kanpora ateratzeko gogoz nago.



Aitzir5 Ac+i, 1mrrnoin

Elgoibar, nik ez nuke inora urtengo, ni hementxe nao onduen. Nere ahizpa jun da oin Ameriketara, baina nik nahi-xao dot herrixan geratzia. Kanariasera jun nintzan bi urtetan neguan, eta han bai ondo. Baina ez nintzake berriz bueltauko, probau ostian, ikusi dot hementxe, etxian naola benetan ondo.



Manolo Unzilla. 75 urte

Los Angelesera, Ameriketara juango nintzake. Lehen eon giñan eta gustora bueltauko nintzake gogoratzeko. Urtian zihar hemen inguruan ibiltzen gera. Lehenao ere asko ibilitxakua naiz eta piskat nazkauta ere amaitxu naban. Oin lasaixao ibiltzia gustatzen jaku, baina jutekotan andriakin Los Angeles bisitxauko nuke.



A



Hortzak hondatzen direnean...

Urtetan aurrera joan ahala gure hortzak hondatu egin ohi dira, eta egunean zaintzen ez baditugu erori ere egin daitezke. Baina teknologiak ere garaiekin batera aurrera egin du eta hortzik ez duten pertsonentzat irtenbideak badaude gaur egun. Dena den, ez da sekula ahaztu behar erremediorik onenak ahoa ondo zaintzea eta noizean behin dentistari bisita egitea direla.

Hortzei ezezik inguruko ehunei ere eragiten die denboraren joanak, Badira hainbat pertsona mastekatzeko duten era bereziarengatik hortzak errazago hondatzen dituztenak. Hortzetako gaitz arruntetako bat piorrea da. Sintomarik ohikoenak enziak gorritzea, bertatik odola jariotzea, eta hauek barrurantz sartzea izaten dira.

Ez da egia protesiak dituztenek ezin dituztela hainbat janari jan

Hortzak jaustean edo kentzean gelditzen diren zuloak estaltzeko, adituek protesiak jartzea gomendatzen dute. Hauek finkoak izan daitezke, hau da, garbitzeko kendu behar ez direnak, edo mugitzen ez direnak. Askok hala uste arren, ez da egia protesiak dituztenek

ezin dituztela hainbat janari jan. Kontuz ibili beharra dago jateko gogorrekin, baina hori norbere hortzekin ere gertatzen da.

Hortzetako gaitz hauek ebitatzeko, ordea, onena hortzak ongi zaintzea da, guk hainbat aholku emango dizkizugu horretarako:

Jatorduen ostean hortzak ongi garbitu. Txikleek, sagarrek... ez dituzte hortzak garbitzen.

Odontologoarengana gutxienez urtean bi aldiz joan.


Elikadura orekatua eraman, gozo eta azukre gutxi janez (hauek jan ostean beti hortzak garbitu).

Hortzetako zepiloa suabea izan behar da eta odontologoak gomendatua.

Hortzak eskulitatez gain, zetazko haria pasatzea eta ahoa ondo garbitzea komeni da.

Jaki eta sustantzia batzuk hortzetako esmalteari kalte egiten diote, kafea, tea eta tabakoa, besteak beste.

Hortzadura kaltetu dezaketen ohiturak albo batera laga: gauza gogorrei haginka egitea, botilen tapoiak ahoarekin irekitzea...



Teresa Aginaga

Mariskoz betetako piperrak

OSAGAIAK: Pikiloko piper osoak, zuritutako ganbak, irina, esnea, olio, arrautzak, tipula eta ardo zuria.

PRESTAKETA

Lehenengo beixamel arin bat prestatuko dugu. Ondoren, zuritutako ganbak zartagi batean frijitu eta beixamelarekin ongi nahastuko ditugu. Hozten denean piperrak beteko ditugu orearekin eta arrautza eta irinetan pasatu ostean frijituko ditugu.

Gero piperrantzako saltsa prestatuko dugu. Horretarako, olio eta txiki-txiki egindako tipula jarriko ditugu zartagi batean eta irin piskatekin nahastu eta gorritu arte edukiko dugu bertan. Irina saltsa loditzeko erabiliko dugu. Ura eta ardo zuri piska bat gehitu eta nahastu ostean, dena koladoretik pasatuko dugu. Dena ontzi batean jarri eta ordu erdiz irakiten izan ondoren, mahaira ateratzeko moduan izango dugu.

ZE

RREZETIP.

ERREZETII

RREZET



"Askotan mendi ezezagunak eta bajuenak dira zailenak"



Juan Karlos Etxeberria

- **Adina:** 50 urte
- **Gustuko kirolik?** Esku pilota.
- **Gehien igo dituzun mendiak?** Karakate eta Kalamua.
- **Zeln mendi gustatuko litzaizuke igotzea?** Pirineotan dauden "Picos del infierno", adibidez.
- **Zer da mendira joateko ezinbestekoa?** -Ura, aldatzeko arropak eta oinetako egokiak.

-Azken lau urteetan 100 mendi igotzeagatik sari batjaso zenuen Finalista Egunean, ezta? -Bai, 100 mendi denbora tarte batean igotzeagatikjaso dut sari hau. Denbora tartea gehienez 10 urtekoa da, eta gutxienez, 5 urtekoa; eta ezin da mendirik errepikatu. Ni, 1991. urtean hasi nintzen eta lehen 100 mendiak igo ostean, bigarren ehuneko amaitu beni dut.

-Edozein mendik balio al du? -Ez, Mendizale Federalcundeak argitaratutako katalogo baten agertzen diren mendiak bakarrik balio dute. Araban 127 mendi igotzeko aukera dago, Bizkaian 128, 122 Gipuzkoan, eta azkenik 219 Nafarroan.

-Gogorra izan al da? -Ez, urtean 25 mendi edozeinek igo ditzakeela uste dut, ez da horrenbestekoa. Nirekin mendira joaten den koadrilan badaude 400 menditik gora igo dituztenak, baina ez daude federatuta eta ez dituzte zenbatzen.

-Zenbatean behin joaten zara mendira? Eta norekin? -Asteburuak aprobeztatzen ditut mendira joateko. Hori bai, euria, kaskabarra edo elurra egin berdin zaigu, ibilbide motzagoa egin eta listo. Larunbatetan lagun koadrilarekin joateko ohitura dut, eta igandetan, berriz, emaztearekin eta semearekin.

-Igo dituzun mendietatik zein iruditu zaizu zailena? -Askotan mendirik ezezagunenak eta bajuenak dira zailenak, biderik ere ez baita egoten. Matxinbentan (Azpeitia) dagoen Txarabeltz mendia ez zait sekula ahaztuko, biderik zailenetik igo genuen eta ibilbide neketsua izateaz gain, benetan zatarrak ziren.

-Aspalditik al datorkizu mendizaletasuna? -Bai, gaztetatik. Garai hartan ez zegoen beste ezer eta mendira joateko ohitura geneukan. Inguruko mendietan bakarrik ibiltzen ginen. Gero, Joakin Guntzagarekin hasi nintzen mendira joaten. Mendi berri asko erakutsi zizkidan eta baita mendizaletasuna piztu ere. Bere ilusioa 100 mendiak igotzea zen eta hil aurretik astirik izan ez zuenez, berari eskaini dizkiot.

-Euskal Herriko paraje ikusgarri asko ezagutzeko aukera izango zenuen, ezta? -Bai horixe. 100 mendi igotzearen helburuetako bat horixe da, Euskal Herriko mendiak ezagutzera, alegia. Batzutan harriztatuta geratzen naiz etxetik hain hurbil, pauso batzutarra, paraje zoraganiak lehen aldiz ikusteaz. Ez ditugu behar beste baloratzen.

-Mendiak behar beste zaintzen al ditugu? -Koadrilan joaten garenoi pena handia ematen digu mendian plastikoak, botilak etab. ikusteak, egia esan asko ikusten baitira.

-Galdu al zara inoiz mendian? Behin Kalamuan ederra pasa zitzaigun. Lagun bat eta biok Kalamua jeisten hasi ginen, normalean erabiltzen ez nuen bide batetik eramanez ninduen lagunak, eta behar gerozela hitz eta pitz, konturatu orduko ia Markinara iritsi ginela ohartu ginen negutegiak ikusi ginituenean.

-Hirugarren ehuneko egiteko asmorik bai? -Bai, hasi naiz jadanik eta ikusiko dugu lortzen dugun, semeak berari ere egitea gustatuko litzaiokeela esan dit.

KIROL ALBISTEAK

• Tddoturisten irteera hdaren 18an

Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta, datorren domekan, hilaren 18an, izango da XXIV. zikloturista irteera. Goizeko 9:00etan Txankakua zubitik abiatu eta honako ibilbidea egingo dute txirrindulariek. Oraingoan, ibilbide bakarra izango da, aurreko egunean Sabiñanigon "Quebrantahuesos" proba korrituko baita. Honako hau izango da ibilbidea: Elgoibar, Eibar, Areatio, Berriz, Durango, Zornotza, Lerno, Igorre, Areatza, Zeanuri, Barazar, Otxandio, Villareal de Alava, Kruzeta, Aramaio, Arrasate, Bergara, Sorraluze eta Elgoibar. Guztira 127 km. dira. Nahi duen edonork har dezake parte.

38 talde ari dira parte hartzen Futbol 7 Txapelketan




Pasa den asteburuan, hilaren 10ean, hasi zen Elgoibarko eta Eibarko Kirol Patronatuek antolatzen duten Futbol 7 Txapelketa. Partiduak Mintxeta eta Unbeko (Eibar) futbol

zelaian jokatu dira liu'unbat eta igande goizetan. Antolatzailerek, heni bakoitzean 25 partehartzaile gehienez onartzeko asmoa zuten. Elgoibarren 22 taldek eman dute izena eta Eibarren 16k, beraz, aurretik 38 talde egongo dira lehian. Txapelketa hau bi hilabetez luzatuko da eta finala uztailearen 23an jokatu da. Aipatzekoa da Elgoibarren jokatu diren partiduetan Pedrusko F.C. taldeak beteko dituela arbitraje lanak.

Nahaste Borraste proba herrikoa asteazkenean, ekainaren 21ean, jokatuko da

Mendi bizikleta zozketatuko da proba bukatzen duten gaztetxoen artean

Kimetz Elkartek antolatuta, asteazkenean, hilaren 21ean, arratsaldeko 19:00etan hasiko da Nahaste Borraste kirol proba herrikoia 16, edizioa. Ohi denez, 3 kirol ezberdin menperatzen dituztela erakutsi beharko dute partehartzaileek: bizikleta, 25 kiloko (10 kilo emakumeentzat eta 5 gaztetxoentzako) zakuarekin bizkarrean, eta saltaka. 14 urte bitarteko proba arratsaldeko 19:00etan hasiko da. Kimetz Elkartetik bizikleta gainean irten eta Sigmako zubitik San Antolinera abiatuko dira. Karkizano, Madala, San Frantzisko eta Errosario kaleak zeharkatu ostean, Plaza Handira iritsiko dira eta zakuari kolpe egingo diote. 5 kiloko zakuarekin San Bartolome eta Errosario kaleetan zehar pasatu ondoren, honako ibilbidea egingo dute saltaka: San Bartolome, P.M. Urruzuno, San Frantzisko, Errosario eta Plaza Handia.



Bizikletan, zaku bizkarrean hartuta eta saltaka arituko dira partehartzaileak.

Nagusien lasterketa

14 urtetik gorakoek lasterketa 19:15 aldera hasiko da Plaza Handian. Bizikletaz honako leku hauetatik pasako dira: Sigmako zubia, San Antolin, Karkizano, Madala, Ermuaranbide, San Lorentzoko sarrera, Ibarrenea, IMH, Erretxindi, Trenbide, Ezenarro, San Frantsisko, Errosario eta Plaza. Segidan, gizonezkoak 25 kiloko zakuarekin eta emakumezkoak 10 kilokoarekin, San Bartolome eta Errosario kaleak pasa ostean, Plaza bueltatu eta saltaka hasiko dira. Saltakako ibilbidea: Santa Ana, Trenbide, B. Ezenarro, S. Frantzisko eta Errosario kaleetan zehar izango da. Maila bakoitzeko irabazleek Plaza Handian jasoko dituzte garaikurrak. Proba bukatzen duten 10-14 urte bitarteko artean Etmuko 'Agirre Kirolak' etxeak eskainitako mendi bizikleta bat zozketatuko da. Gainontzeko lasterkarien saria, lasterketa amaieran, Kimetz Elkartearen eskainiko den afari herrikoa izango da.



Kannotarrak nagusi ehiza txakurren Trinitate Sariann

Ehiza txakurren 'Trinitate Saria' jokatu zen pasa den zapatuan, hilak 10 Albitxuriko zelaian. Ingeles arrazako txakurren atalean, Fernando Barrutia eibartarraren pointer arrazako txakurra izan zen irabazlea. Jose Luis Valdes donostiarraren setter txakurra sailkatu zen bigarren postuan. Kontinenteko arrazen txapelketari dagokionez, Xabier Oñederra aretxabaletarraren spagniel breton txakurra nagusitu zen. Aurten 9 partaide bakarrak eman dute izena. Antolatzaileen hitzetan, "baliteke eguraldi txarrak jendearen gogoia hoztu izana".

Emailza hikainak lortu zituzten elgoihartarrek Donostiako Belodromoan jokalutako atletismo frogetan

Gipuzkoako Atletismo Federakundeak eta Kutxak antolatuta, "Atletia" izan zen pasa den ekainaren 4an Donostiako Belodromoan. Bertan, Pilar Ikastetxeko, San Bartolome Ikastolako eta Arreiturre Institutuko 6 taldek hartu zuten parte alebin eta infantil mailetan. Elgoibartarrek postu aipagarriak eskuratu zituzten; Alazne Escudero eta Lara Urainek lehen postua eskuratu zuten 60 metroan eta 600 metroan, hurrenez hurren. Iker Isasik bigarren egin zuen luzera jauzian eta, azkenik, Erika Tenak zilarrezko domina irabazi zuen pisu jaurtiketan. Taldekako errelebu-lasterketan San Bartolome Ikastolako nesken taldeak 3. postua eskuratu zuen eta Iehen postua sailkapen orokorrean.



Ilur lorr areto taldea:11 Izo mon Espainiako txapelketa ilErahazi

Mailaz igo direnez, datorren denboraldian Euskal Ligan jokatuko dute

Zur Ta Lur' taldeak Espainiako Aretu Futbol Txapelketan hartu zuen parte pasa den asteburuan, hilaren 9tik I Ira, A Coruñan. Iaz lortu zuten bigarren postua eskuratzeko ilusioarekin joan ziren, baina ez zuten zortetik izan. Lehen partidua 5 eta 4 galdu zuten Aragoiko txapelketa aurka.



Partidu bat irabazi eta bi galdu zituzten elgoibartarrek A Coruñan jokatuako txapelketan.

Zorte txarra

Jose Ramon Iriarte presidentek esan digunez, "zorte txarra izan genuen jaso genituen goletan eta berdintzeko aukerak izan arren, berandu iritsi zen gure erreakzioa". Bigarren partidua 7 eta 3 galdu zuten 'Gisantes Gigante' Valladolideko taldearen aurka, gerora txapelketa irabazi zuen taldea, hain zuzen. "Gure multzotik talde bat bakarrik sailkatu zen finala jokatzeko. Beraz, Iehen partidua galdu ostean, aukera gutxi genituen. Hori dela eta, batera motibaziorik gabe jokatu genuen bigarren partidua. Bestalde, gainontzeko taldeek favoritotzat jotzen gintuzten, eta uste dut lotuta jokatu genuela". Hirugarren partiduan ez zeukaten ezer jokoan. Presiorik gabe jokatu zuten eta taldearen benetako maila emanez 8 eta 3 irabazi zieten GazteIa-Mantako ordezkariak.

nez 8 eta 3 irabazi zieten GazteIa-Mantako ordezkariak.

Euskal Ligan

Jose Ramon Iriarte presidentek baieztatu digunez, datorren urtean Euskal Ligan jokatu du 'Zur Ta Lur' taldeak. Iaz ere, izan zuten maila honetan jokatzeko aukera, baina aurrekontu arazoak medio uko egin behar izan zioten kirol mailan lortutakoari. Aurten Liga irabazi ostean, mailaz igotzea erabaki dute. Datorren denboraldian Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako talderik onentsuen aurka neurtuko dituzte indarrak.

L4:ln1151Y2ilk_1_2 1

Futbola

Eskualdeko Futhol 7 Txapelketa
Malas Hierbas 0 - Litoplasma 4
Harzubi 1 - Antzarrak 4
Old Boy's 1 - Lojantzi 9
Inkiszion 5 - C.D Kadar 1
Irion 4 - Kashima Brewers 4
Hashneken 1 - Ke+da 4
Aide Globun 3 - Patxi Taberna 6
Grasshopper 9 - Spartak Pitxote 0
Softlan 5 - Artetxe 4
Zer ote? 4 Celta dei Vino 10

Esku Pilota

Lagunak Pilota Txapelketa
Finalerdiak
0.Txurruka 18 - A. Mendibil 8
M. Portu 18 - J. Mutioz 7
I. Txurruka 18 - A. Guemez 11
Sigmako Pilota Txapelketa
Otaño/J. Loiola 22 - Ulazia/Arizmendi 7
Ansola/Agirrebeña 22 -
Urtubia/Lazarobazter 13
Ansola/Agirrebeña 22 - Karmel/Egaña 13

\ G I E N I D A

Esku Pilota, Sigman

Asteartea, 20
19:00 Lotola/Arrillaga - Ulazia/Arizmendi
19:30 Osoro/Rojo - Ubera/Katei
20:00 Ansola/Agirrebeña -Gerrika/Altzibar
Osteguna, 22
Otaño/J. Loiola - Anjel/Eneko
Esnaola/Balzola - Karmel/Egaña



Ikastolako 6. mallako neskek eta mutilek Gipuzkoako Eskubaloi Txapelketan hartu dute parte

Ikastolako 6. mailako neskek eta mutilek, alebin kategorian, Gipuzkoako Eskubaloi Txapelketaren finalerdietara ailegatzeko lortu dute. Liga txapelketan sailkapena lortu ostean, pasa den larunbatean jokatu zituzten finalerdiak. Neskek Lezon jokatu zuten, baina ezin izan zuten irabazi. Mutilek, berriz, Erreterian jokatu zuten eta hauei ere galtzea tokatu zitzaizkien.



Mirari

U n a -
muno 30 ur-
teko elgoi-
bartarra Iru-
ñean bizi da.
Iruñean bizi
dela diogu,
baina Donos-
tian egiten du
lan eta ia aste-
btruero etor-
tzen da Elgoibarrera bisitan. Duela

10 urte Lanbide ikasketak amaitu eta Iruñeatik klaseak emateko eskaintza jaso zuen, "euskaraz zakiten irakasliak bihar zitxuen eta ni aukeratu ninduten". Iruñean enpresaritzak ikasketak egin zituen, "goizez klasiak eman eta anatsaldez unibertsitatera juten nintzan. Duela 3 urte atera naban karrera". Bestalde, ezkondu eta alaba bat izan zuen, aurki 2 urte beteko ditu. Orain, Donostiako Lanbide Heziketa institutu batean ari da lanean, "gogona da egunero Donostiara mugitu biharra, ostiralerako nekauta bukatzen dot, baina azkenerako ohitxu eitzen zera". Elgoibarko etxeaz, familiaz eta lagunez asko oroitzen da, baina Iruñean gustura bizi dela aipatu digu, "hiri oso politxa da eta jendia oso jatorra, oso 'sanoteak' dira, nafar peto-petoak. Iruñean eta Donostian aurkitxu ditzuten ikasliak oso ezberdinak dia, ez dao konparatzerik. Gainera, gizurra badirudi ere, Donostian klasiak gazteleraz ematen ditzut eta Iruñean, berriz, euskaraz", Bere lana gustuko duela aipatu digu, "frakas-kuntza gustatzen jata, baina urteak pasa ahala ikasleekiko ezberdintasunak handituz doiaz, hasi nintzanean edade berdintsua zakagun-eta".

lIumm **
VIA **.ger** BIqAIK
31LBRO EXPeESS
bidaiak agentziak
babestutako atala
Foruen enparantza, 3
Tel: 943 74 39 12

FlorenZina Leyarioll Arrieta

11.8011-11S94)



- 1891ko martxoaren 14an jaio zen San Lorentzo bailarako "Garagartza Behe" basefian. Sei anal-arreba izttn ziren, bi aitarenak. Bera zen higarrena.
- Baserri ondoan zegoen San Lorentzoko eskolan egin zituen ikasketak. Aldi berean, baseniko lanak egin ohi zituen. Koadrilako neska lagunekin erromerietara ere joan ohi zen. San Lorentzo, Kurutzeta edota Madarixara joaten ziren; azken honetan dantza "agarraurik" egiterik ez bazegoen ere.
- Gerardo Uribenean egon zen zerbitzu lanak egiten. Arropa josten kalean ikasi zuen. Orduko ohiturei jarraituz, izeba batek auzoko "Urki" baserrira eraman zuen bertako lanak egiten laguntzera.
- Han denboraldia pasa ostean, bailara bertako "Upai Goitxi" baserriko (bailarako altuena) Jose Soralezarekin ezkondu zen. Maiorazga hasi behar izan zuen bizimodu berrian. 5 seme-alaba izan zituzten: Marta, Justo, Juan, Jesusa eta Marzelina. Suhiak eta errainak, berriz, Jose Oruesagasti, Josefa Agiffe, Ageda Solaguren, Jose Ma San Martin eta Carlos Aginè.
- Florentina langile amorratua eta dantza soltean trebea zen. Gogor lan egin behar izan zuen familia hura aurrera ateratzeko. Sarritan joaten zen Arantzazura, baita Arratera oinez ere, senarra eta umekin.
- 60 urterekin kalera salmentara etortzen zen astoa hartuta. Gero, airatsaldean labekada ogia erre, eskuzko makinarekin arropa josi eta baserriko eguneroko lanak egin ohi zituen.
- Genio bizikoa, zintzoa eta jatorra zen. Badira oraindik ere Florentinak sekula gezunik ez zuela esan diotenak. Sinesmen handikoa zen eta bailaran oso maitatua. Makina bat enogatiba, gari bedeinkatze eta horrelako ohiturak ezagututakoa.
- Bere zaletasunen anean familia, lagun anea, euskal kantak, benso zaharrak eta dantza soltea zeuden. I 964ko irailaren 23an hil zen, 73 arterekin.

Juanito Gorostiza

NVA
INPRIMATEGIA

OK1

014DO PRSR13 3R

Santa Arta, 44 • Telf. • Fax: 943 74 44 51 • ELGOIBAR (Gipuzkoa)

Diseinu Grafikoa
Publizitatea
Bisita Txartelak
Kartelak, etab.


BUKATU
ts.

Olaso inCiustriaIdea. Olasape, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

11 943 82 01 09
Faxa: 943 8201 62
Indalezio Ojanguren 2, behea
• **20600 EIBAR**



ste honetako erretratu zaharra Jose Luis Aranak Iaga digu. `Biar-Dana' elkarteko kideak dira eta argazkia, 1982ko uztailaren 11n ateratakoa da. Honako hauek dira bertan agertzen direnak:

Goian, ezkerretik eskumara: Jose 1VIn Lizundia, Juan Garate,


Isidoro Zubiaurre (t), Eduardo Etxaniz (t), Rafael Rodriguez, Fermin Ruiz, Cruz Gurrutxaga (t) eta Isidoro Goikolea.

Beheko ilaran: Amantzi Konde (t), Jose Elgoro (t), Sabino Arriola, Sabino Sorondo (t), Jose Arrieta, Jose Zubiaurre, Adolfo Arana (t), Luciano Ecenarro (t) eta Jose Rivero (t).




I. URTEURRENA

2000 ko ekainaren 12an, 83 urte zituela hil zen **FELIX GARCIA GARATE**en oroimenez **URTEURRENEKO MEZA** izango da Parrokian larunbatean, hilak 17, arratsaldeko 19:00etan. Joaten zaretanoi eskerrak alde z aurretik.



HILETA MEZA

2000ko ekainaren 1ean, 73 urte zituela hil zen Bartzelonan **LUIS GABILONDO UNAMUNZAGA**ren oroimenez **HILETA MEZA** izango da Parrokian larunbatean, hilak 17, arratsaldeko 19:00etan. Joaten zaretanoi eskerrak alde z aurretik.



ITARD
LE
TXE

CY:
(1) TAIZEKNA
Pedro Muguruza 8, beheha
Tel. 943 74 19 48

ekainak 21,
eguztena
21:3

ANTZERKIA
"frakurie anbulanteak"
Chusma Teatro Taldea
BOKATA + KAÑA r. 500 pla.

ekainak 22,
eguztena
21:30

DIPOSITIBA EMANALDIA
"8 hilabete Hegoamerikan
eta Ertamerikan zehar"
Josu Iriondo eta Unai Cabezón
BOKATA + KAÑA = 500 pla.

ekainak 23,
bop Tel: 111111410

21:30 SAN JUAN AFARIA
TXARTELAREN PREZIOA: 2.500 pta.
SALTOKIAK: _____
Toletxe taberna
Elgoibarko Izarra K. E.



Barricadar taldeak kontzertua eskainiko du bihar, Trinitate bezpera, Madalako parkean

Kontzertua, Kale Antzerkia eta Arku Tiraketa dira festen egitarauko aurtengo nobedadeak


Trinitate jaiak gainean ditugu eta urtero bezala, festarako prest gaude herritarrek. Aurtengo honetan gustura asko jarri dira gazteak Trinitate Egunaren bezperan Barricada taldearen kontzertua dagoela jakitean. Talde nafarrak bihar, zapatua, gaueko 23:00etan joko du, Madalako parkean. Telonero lanean, berriz, Ilautzarrak' taldea izango da.

Kontzertu honen antolaketa Udala eta ostalarien arteko kontua izan da. Aski ezaguna den talde nafar hau 1981ean sortu zen eta harrez gero, makina bat lan egin dute elkarrekin. Beraien lanetako kanta ezagunenak entzun ahal izango dira Elgoibarren. Honeia, 'Barrio conflictivo', 'No sé que' hacer contigo' edo 'Balas blancas' diska ezagunetako kantuak.

Kale Antzerkia
Bestalde, bihar larunbata, arratsaldeko 19:00etan, kalera irten eta torero jantziarekin norbait ikusiz gero, ez beldurtu, Trinitate jaien barnean antolatatu duten 'Trapu Zaharra' taldearen kale antzerkia da eta. Lanak 'Paquetito' du izena eta bertan Francisco Jas Bulto izeneko toreroak eta 'Paquetito' goitizenez ezaguna denak, asko maite duen zezen bat salbatzearen egiten dituen ahaleginak agertzen dira. 'Lucero' salbatzea da bere obesio bakarra.

Urtero bezala haur parkea, xake txapelketa, Musikeskolako jaialdia, dantzaldia, artisau azoka edo tanborrada ere izango dira jaietan

Arku tiraketa
Trinitate Egunean bertan, igandean, arratsaldeko 17:00etan arku tiraketa egingo da Foruen Plazan. Eurria eginez gero, kiroldegian izango dela abisatu dute. Arku tiraketa hau herri arteko txapelketa moduan antolatatu dute 'Zarta' taldekoek. Lau herrialde hartuko dute parte eta noski, horietako bat Elgoibar izango da. Besteak, berriz, Arrasate, Eibar eta Barakaldo izango dira. 'Zarta'



V Artisan Azoka Leku Ederreko tuarkean



tkiddi

gviharko Uditlak eta ostalariek antolatatu
#te 'Barricada' taldearen kontzertua.

Arku Tiraketa Elkartekoko kidea den Iñigo Astigarragak adierazi digunez, ez da ohiko txapelketen bezalakoak izango. Partehartzailerik pusgarri handi bat, pusgarri txiki bat, sagar bat eta aro baten erdira tira beharko dute, zailtasun handienetik txikienera". Talde bakoitzak 6 partaide izango ditu eta amaitu ostean, guztientzat oroigarriak banatuko dira.

Jaietako amaiera emateko erraldoi eta buruhandien kalejira izango da, dultzainero eta guzti, igande arratsaldean. Une honetara iritsi baino lehen, ordea, Trinitate jai hauetan ohikoak bihurtu zaizkigun haur parkea, xake txapelketa, Musikeskolako ikasleen jaialdia, Foruen Plazako dantzaldia, artisau azoka edo haurren tanborradaz gozatu ahal izango dugu. Badago non auke-ratu. Ondo pasal!



Vilaskarada'Antzerki Taldekoek beraien 'ficaro' antzerkiati musika jartzeko eskatu zioten Juan Carlos Perez kantariari. Aitzaki honekin ilfutrikun jaio eta Azkoitian bizi den gizon honek bere Imcgarren diskoa kateratu berri du. Azken diska honi 'Ikaro' deitu dio baita ere. Gaur, ostirala, Herriko Antzokian entzun ahal izango ditugu kanta hauek eta zuzenean abestuko ditu, gainera. Ikuskizuna gaueko 22:30ean hasiko da. Aurretik Juan Carlos Perezekin hiz,lcetalditxo bat egin nahi izan dugu bere lanari buruz zerbait gehiago jakin ahal izateko.

Juan Carlos Perez kantaria "Abenietan nitaz rootz egitea ez gogokoⁿ

11 Oraindik Itoiz taldeko kide ohia bezala ezagutzen aI zaituzte?

Bai, noski. Itoizek arrakasta handia izan zuen eta normala da nire izena garai haiekin lotzea. Garai bakoitzak bere lan egiteko modu desberdinak ditu eta nik epoka hura hasierako eskola bezala hartu dut. Orain, denbora pasatu eta gero, beste modu batera ikusten ditut gauzak.

"Itoiz taldean ahesten nuen garai hura hasierako eskola bezala hartu dut"

11 Zuk esandakoa da azken diska hau alde intimistago batetik egin duzula. Zer esan nahi duzu honekin?

Ez dut nahi izan gauza pertsonalei buruz hitz gitea. Alderantziz, horretarako garaiak daudela iruditzen zait. Agian, 17 urterekin neure buruaz hitz egitea gustokoago nuen, baina orain, gauzei ikuspegi unibertsala ematea nahiago dut. Hori, ordea, oso zaila da eta agian, beti kutsu pertsonal bat sartu ohi dut. Horregatik da intimistarena, baina normalean, nahigabe egin ohi dut.

"Ikaro pertsonaia mitologikoa da, haina gaurkotasunarekin izugarri lotuta dago".

11 Azken diska honek ba al du lehengoekin zerikusirik?

`Maskarada' taldearen ideia izan zen guztia. Hori dela eta, diska hau nahiko modu berezian ateratakoa da. Enkarguzko musika dela esango nuke, gidoi bati lotuta atera den zerbait.

11 Nor da `Ikaro'?

Pertsonaia mitologikoa da. Bere bizitzak interpretazio asko ditu. Hain aspaldikoa izanik, ordea, gaurkotasunarekin izugarri lotuta dago. Bakardeari buruz hitz egiten da, adibidez, eta hori gaur egun pil-pilean daukagun gaia da.

11 Zer motatako musika konposatu duzu `Ikaro'rako?

Rock eta poparen arteko nahasketa da. Niretzat bi musika mota hauek beti doaz nahasita.

11 Zer eskatuko zenioke `Ikaro' ikustera joaten denari?

Istoria nahiko abstraktua izan arren, denbora erraz pasatzen da. Ez da ohiko antzerkien modukoa baina ez du arreta berezirik eskatzen. Nire ustez eseri, ikusi, eta entzutea da kontua. Musika zuzenean izateak ere bere garrantzia du. Gero bakoitzari sentimendu desberdinak sortuko dizkio, hori da kontua.

T
O
E.
X
E

SUKALDARIA BEHAR DA

San Bartolome jaietan lan egiteko.

- Sukaldean eskarmentua izatea eskatzen da.
- Interesatuak deitu 943 74 16 26 telefonora.
- Ekainaren 30a baino lehen.

TA BERNA Fedro Muguruza 8, behea • Tel. 943 74 19 48

ELGO1BARKO

18 ostirala

22:30 "IKARO"
IKUSKIZUNA
Juan Carlos Perez kantaria
eta 'Maskarada'
antzerki taldea
Herriko Antzokian

17 larunbata

19:30-22:15 ZINEA
"Historia de lo nuestro"

23:00 KONTZERTUA
"Barricada"
Madalako parkean

18 igandea

9:45 ELGOIBARTIK
ARANTZAZURA
ERROMESALDIA
Irteera Sigmako zubitik

18:45 GELATXOrekin
DANTZALDIA
Plaza Handian

19:30 FILMA GOREA
"Bad taste"
Gaztetxean

19:30-22:15 ZINEA
"Historia de lo nuestro"

22 osteguna

20:00 HITZALDIA
Gaia:
Zezenak Euskal Herrian
Hizlaria: Juan Luis Bikuña
Kultur Etxean
Antolatzailea: Mazantini
Zezenzale Elkarte

21:30 DIAPOSITIBA
EMANALDIA
"8 hilabete Hegoamerikan
eta Ertamerikan zehar"
Hizlariak: Josu Iriondo eta
Unai Cabeza
Toletxe tabernan

1 asteleena

22:15 ZINEA
"Historia de lo nuestro"

21 asteazkena

19:00 NAHASTE
BORRASTE
Irteera Plaza handian
Antolatzailea:
Kimetz Elkarte

21:30 ANTZERKIA
Antzezlanak:
Irakurle anbulanteak
Taldea:
'Chusma' Antzerki Taldea
Toletxe tabernan

23 ostirala


18:30 ODOL-ATERALDIA
Pedro Migel Urruzuno 8an

20:00 'ALCOHOLICOS
ANONIMOS'
ELKARTEAREN
HITZALDI IREKIA
Kultur Etxean

21:30 SAN JUAN
AFARIA eta
ERROMERIA
Toletxe tabernan
Prezioa: 2.500 pta.

22:15 ZINEA
"Doble traición"

11 NE A



Zuzendaria: Rob Reiner.
Antzezleak: Bruce Willis,
Michelle Pfeiffer, Tim Matheson.

"Historia de lo nuestro"

Jordan senar-emazteak nekatuta daude elkarbizitzaz eta denbora tarte batez banatzea erabakiko dute, beraien seme-alabak udako kanpamentura joan direla aprobetxatuz. Zerk elkartu zituen eta zergatik iritsi diren banatzera hausnartuko du bakoitzak bere aldetik. Ez dute ulertzen egun batez bikotea horrenbeste maitatzeko balio izan zuten ezaugarriak, egun horren gogakandak bilakatzea. Noiz ahantzi zuten bata bestea gabe ez dela pertsona osoa?

• **IKanta Cantemus`
Abesballa ekainaren
24an, Parrokian**

Biar-dana Elkartearen 50. urteurreneko ekintzen barruan, datorren ekainaren 24an, larunbatean, `Kanta Cantemus' koroak kontzertua eskainiko du Parrokian. Jabier Busto hondarribiarak sortu zuen emakumez osatutako koro hau 1995. urtean, gaur egun ere bera da koroko zuzendaria.

• **Odol ateraldia,
ostiralean, hilaren
23an**

Odol Emaleen Elkartetik aditzera eman nahi dute, datorren ostiralean, hilak 23, odol ateraldia izango dela Pedro Migel Urruzuno 8ko egoitzan. Aurrez deitutako guztiei eta bereziki 18 urtetik gorako gazteei odola ematea oso garrantzitsua dela gogorarazi nahi diete.

• **San Juan jaia
GAZ-T taldearekin,
ostiralean,
ekainaren 23an**

GAZ-T Begirale Taldeak D.B.Hko gazteei zuzendutako San Juan jaia antolatu du ekainaren 23an. Egun horretarako diaporama ernanal-diak, afaria, suak eta diskoteka antolatu dituzte. Izena emateko epea ekainaren 16tik 21era bitartean luzatuko da. Prezioa 500 pta.koa izango da. Izena emateko 943 74 16 26 telefonora deitu.

• **Antzerkia, diapositiba
emanaldia eta San Juan afaria
Toletxe tabernan**

Datorren asteazkenean, hilaren 21ean `Chusma' Antzerki Taldeak "Irakurle anbulanteak" antzezlan eskainiko du Toletxe tabernan. Ostegunean, hilak 22, berriz, Josu Iriondok eta Unai Cabezonek "8 hilabete Hegoamerikan eta Ertamerikan zehar" izeneko diapositiba emanaldia eskainiko dute. Argentina, Patagonia, Txile, Bolivia, Peru (Andeak), Ekuador, Kuba, Txiapas eta Mexiko zeharkatu dituzte 8 hilabetetan. Bi saio hauek, bai antzerkia eta baita diapositibak ere gaueko 21:30ean hasiko dira. Azkenik hilaren 23an, barixakua, San Juan afaria izango da Toletxen gaueko 21:30etatik aurrera. Ondoren erromeria egingo dute. Prezioa 2.500 pta.koa izango da.

• **Jokin Urainek idatzitako
liburuaren aurkezpena
Trinitate Egunean, Mendaron**

Trinitate Eguneko eliz ospakizunaren ondoren Jokin Urainek idatzitako azken liburuaren aurkezpena egingo da Mendaroko elizan bertan. "Gatibu jaio nintzen" da buruaren izena eta 18 urtez preso egon den Antton Garcia del Molinoren bizipenak kontatzen ditu liburuak. Bera ere Trinitate-etan egotea espero da igande honetan.

• **Elgoibartik Arantzazura
erromesaldia domekan,
hilaren 18an**

Domekan, Trinitate Egunean, izango da San Bartolome Parrokiak antolatzen duen Arantzazura erromesaldia 2.000. Autobusaren eta bazkariaren prezioa 3.000 pta.koa da eta Murua gozotegian eman daiteke izena. Azken eguna gaur, hilak 16, izango da. Domekan, goizeko 9:45ean irtengo da autobusa Sigmako zubitik. Goizeko 10:55ean elkartuko dira basilika aurrean eta gainontzekoekin prozesioan sartu. Meza nagusia eguerdiko 12:00etan izango da, eta bazkari herrikoia 14:00etan. Arratsaldeko 19:00etarako Elgoibarren izatea espero dute.

• **Errioxara txangoa
Jubilatuena Biltokitik**

Jubilatuena Biltokitik Calahorrara (Errioxa) txangoa antolatu dute. Ekainaren 28an, asteazkena, irtengo dira errioxako parajeak ezagutzera. Joan nahi dutenek 2.700 pta. ordaintzea besterik ez dute.

**TRINITATE JAIEN
egitaraua.**

LARUNBATA, Ekainak 17
11:30 Haur Parkea Nafarroa Plazan (Euria egingo balu Kiroldegian).
16:00 XVI. Xake Txapelketa. Leku-Eder parkean.
16:30 Haur Parkea Nafarroa Plazan.
17:00 Inazio Bereziartua
Musikeskolako ikasleen jaialdia, Udal Txistulari Taldeak eta Haritz Dantzari Taldeak lagunduta. Plaza Handian.
19:00 `Paquetito' kale antzerkia Trapu Zaharra taldearekin.
23:00 `Trinitateetako III. Dantzaldia', Udal Musika Bandarekin.
23:00 `Barricada' Taldearen kontzertua. Madalako parkean.

**IGANDEA, Ekainak 18
Trinitate Eguna**

9:00 Diana Udal Txistulari Bandarekin.
10:30 `V. Artisau Azoka. Leku-Eder parkean.
11:00 Bapateko VII. Xake Txapelketa. Kiroldegian.
12:00 Haurren Tanborrada, Musikeskolako Bandaren laguntzaz.
17:00 Arku Tiraketa. Plaza Handian.
18:00 Erraldoi eta Buruhaundien kalejira.

OSTEGUNA, Ekainak 22
20:00 "Zezenak Euskal Herrian" Hitzaldia, Juan Luis Bikuña hizlariarekin.

1251BM[1111

FARMAZIAK

	Egunez	Gauz
17	Yudego*	Escala
18	Yudego*	Escala
19	Bidasolo	Bidasolo
20	Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria
21	Fernandez	Fernandez
22	Yudego	Yudego
23	Zabaleta	Zabaleta

*(eguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze.
Tel. 943 75 16 38

J. IGNACIO FERNANDEZ Herriko enparanta 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA
18 igandea Eizagirre

Etxebizitzak

- Gela bat daukat alokatzeko. **tr 943 74 18 81**
- Apartamentu bat alokatzen da Nojan, ekaina, uztaila eta irailean. Astebete edo hamabostaldietarako. **tr 943 74 09 57.**
- Uztailerako apartamentua alokatzen da Torrebiejako "Playa del Cura"n. **te 943 74 24 50**
- Alokaiman dagnen pisu bat nahi nuke. Presa dut. **943 74 30 25-677 86 48 48**
- ♦ Deban etxea salgai, Mogel kalean. Hiru logela (bat teilatuaren kontra), bi bainu-gela, sukalde txikia eta egongela. Bertatik itsasoa ikusten da. **a 943 19 21 98** Pepi
- Apartamentua alokagai Torrebiejan, Hondartzatik oso gertu. **tz 943 74 23 63**

Iana

• ESKAINTZA*

- Mutila behar da tabernan kin egiteko. Arratsaldetan eta asteburuetan. **te 943 74 28 97**
- Neska behar da Jubilatuen Biltzeko tabernan lan egiteko. Ekainaren 23tik uztailearen 23ra arte. **tr 943 74 05 26**
- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. **ts: 943 74 42 43** (gauetz)
- Janari banatzailea behar da. Pertsona arduraduna eta B-1 gidabaimena duena. **te 943 74 18 67** (20:00tik 23:00ra).
- Informatikan lizentziatua behar dugu irakasle lanetarako. **tr 943 74 08 50**
- Neska arduratsua behar da 2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. **er 943 70 15 86**
- Neska euskalduna behar da Deban umeak zatitzeko. **tr 943 19 15 81** (gauetz)
- Goiko Errota elkarte garbitzeko pertsona bat behar da. **tr 943 74 01 72.**
- Neska behar da abuztuan lan egiteko. **11: 943 74 04 56** (Maria)
- Emakumea behar da garbiketarako lanak egiteko, **tr 943 74 10 03**
- Neska behar da tabernako barran lan egiteko. **943 74 34 14**
- Jostuna behar da arropa konpontzeko. Makinaz eta eskuz josten dakiena. **tr 943 19 28 51**

♦ ESKAERA•

- Euskarazko klaseak ematen dira arratsaldetan. **tr 667 99 16 37**

Bestelakoak

- Ekainaren 9an, AX ilun bati eta Visa gorri hati kolpea jo zioten Santa Ana errotondan. Informazioa ermtur dezakez **-a 943 74 01 17ra** deitu.
- Gizonezkoentzako erlojua galdunuen San Pedron hilaren 3an. Topatu duenak. **tr 943 74 14 52** ra deitu,
- Graduaturako betaurrekoak galdutut. Santa Ana kaldik Olasora birtartean. **tr 943 74 06 01**
- Zaindu ezin dudala-eta, satnolledo arrazako txakur bat oparitzen dut. Cristina **tr 943 74 28 69.**

Salerosketak

- Kanping denda saltzen dut. Bi logela, sarrera eta toldoa ditu. Bi edo lau pertsonentzat da eta muntaia errezekoa. Berri-berria da. **tz 943 74 05 37**
- VHS Panasonic bideokamera salgai. Koloredun bisore-optikoa. SP/LP titulazioa. Bideoarekiko konexioa. 2 bateria eta CA egokizaila. Oso egoera onean. **ts 943 74 43 74**
- Katu persak eta angorazkoak salduko nizkioke pertsona arduratsua bati. **609 94 69 40**
- 6 hilabeteko artzai txakur alernana eta snaufer handia salgai. **tr 609 94 69 40**
- Karro denda salgai, abanxe eta osagaiekin. **a 943 74 33 61**
- Labadora salgai. Prezio onean. **tr 943 74 39 75.** (Artate.20:00tik aurrera deitu)
- Iosteko makina bat erosiko nuke. **tr 943 74 07 85** edo **943 74 14 25**
- Txakturak oparitzen ditut. Artzai txakur aleman eta euskaldunaren arteko nahasketa dira. Apirilaren 16an jaiotakoak. **tr 943 74 16 05.** Idoia,
- Bigarren eskuko eskusoinu bat erosiko nuke. **tr 943 74 28 53.** Aitor.
- Plater garbigailu berria salgai. Estreinatua gabealr **943 74 05 37**
- Artzai txakur euskalduna, emea, 10 hilabetemkoa oparitzen dut, zainterik ez dudalako. **Tr 943 74 38 91.**
- Ford Mondeo 1.8 TD salgai. **IT 943 74 43 25** (gauetz).
- Opel Astra Van (2 eserleku), 1.7 TD salgai. Oso egoera onean. Lau urte eta erdi ditu. Beti garajejan egon izan da. **tr 629 44 45 35**
- Poleazko arku bat saltzen dut, osagarri eta guzti. **a 943 74 07 09** (Asier).
- Mounmin bike bizikleta salgai. **Tr 943 74 39 75** (Arrate. 20:00etatik aurrera).

Oharra

Merkatu txikirako oharrak asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direla gogorazten dizuegu.

Agurrak

- Superzorionak **Antonio Conderi**, hilaren 13an urteak bete zituelako. Bere emaztearen eta alabaren partez.
- Zorionak **Roeio** Gallardori, hilaren 7an 11 urte bete zimelak. Bere familiaren partez.
- Zorionak **Antonio Gallardori**, hilaren 5ean urteak bete zituelako. Familiaren partez.
- Zorionak **Gurutz The Mister**, entrenadorerik onena zardako. Segi horrela! Ekipo osoaren partez eta bereziki, Sararen partez.
- Zorionak **Estihali**, ekainaren Stin 12 urte bete zituelako. Giroparen partez. Segi horrela!
- Aupa **Jokin! Heldu da zure eguna**, dagoeneko 13 urte! Jadantik zaharitzen! Zorionak Ikastolako **D.B.H.** 1 ekoen partez. Ea gurasoen aurkako partidua irabazten duzuen.
- Zorionak **Joanes Rodriguez eta Maitane Blancort**, hilaren 11 eta 10ean 13 urte bete zituztelako. **Ikastolako D.B.H.** lekoen partez.
- Zorionak **Eiderrri**, urteak betetzen diatelako. **Astnatu zein naizen.I.L.**
- Zorionak **Kirnetzi**, ekainaren 14an 12 urte bete zituelako. Zorionak moreno!!! Zure lagunaren partez.
- ♦ Zorionak **Maiderrri**, hilaren 14an 12 urte bete zituelako. **Badakizu nortzuk garen, Maidertxu? Asmatu!!**
- ♦ Zorionak **Tamarari**, hilaren 17an 12 urte betetzen dituelako. **Zorionak potxola!!**
- *Zorionak **Joana Komerori**, hilaren 15ean urteak bete zituelako. **Adrianen eta Argiren partez.**

- Animo! Laster amaitzeko dia azterketak eta ospatuko dugu afari batekin. Patxo bat. Etxekuak.



• Zorionak **Haritz Igartuari**, bihar, hilak 17, 5 urte beteko dituelako. Gurasoen partez.

• Zorionak **Mireni**, hilaren 14an urteak bete zituelako. Famili osoaren eta bereziki, aita eta amaxoren partez.



• Zorionak **txapeldun! Ondore** pasau ostegunean, baita oporretan ere, merezi dozu-eta.

♦ Zorionak **Nahia Abadi**, hilaren 19an 9 urte beteko dituelako. **Famifia** osoaren partez muxu hat




• Zorionak **Unai**, hilaren 17an urteak betetzen dituzulako, **Familiaren partez.**

• Zorionak **Begoiari**, hilaren 15ean urteak bete zituelako. **Familiaren partez.**



* Zorionak **etxeko trikiari**, atzo, osteguna, 6 urte bete zituelako. **Muxu bat aitzitza eta arnabaren partez.**



♦ Zorionak **Josuri eta Maiteri**, hilaren 18an eta 20an urteak beteko dituztelako. **Egun ona pasa eta segi aurrera bikote, Familiaren partez.**

• Zenbat urte bihar? Bat, bi eta... hiru!!! Zorionak **pardeltxo** eta muxu haundi bat danon partez.



• Zorionak **Kimetz**, hilaren 14an dozana bat urte bete zenituelako. **Imanol eta etxeko guztien partez.**

• Aupa **Andrula! Zer**, ondo pasa al zenuen? Berandu bada ere, zorionak!!! **Larunbatian ospatuko dou.**



UDAL EUSKALTEGIAK

2000ko UDAKO

PUSKARA IKASTAROAK



Egsketevt4ke prestl
iVevane4 evas egskete

EGA azterketa prestatzeko ikastaro berezia

- * Ekainaren 26tik uztailearen 21era eta irailaren 4tik 8ra.
- * 4 ordu goizez.
- * Prezioa: 15.000 pta.
- * Ikasle eta langabetuentzako prezioa: 8.000 pta.

Euskalduntze maila guztiak

- * Ekainaren 26tik uztailearen 21era.
- * 5 ordu goizez.
- * Prezioa: 15.000 pta.
- * Ikasle eta langabetuentzako prezioa: 8.000 pta.

Barnetegia Zerainen

- Gipuzkoako Udal Euskaltegiok antolatuta.
- * Uztailearen 1 etik 15era, astebukaerak barne.
 - * Prezioa: 38.000 pta.

Matrikulaldia

Ekainaren 1 etik 23ra.

DEBABA UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

ELGOIBAR: Natarroa Enparantza,2 Tel. 943 74 27 31 E-posta: elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net
MUTRIKU: Txurruka Enparantza 1 - Tel. 943 60 30 94 E-posta: euslunutriku@udal.gipuzkoa.net
DEBA: Ifar-kale. 12 Tel. 943 19 22 36



Arretxabaleta Arrasate Azpeitia Bessain
Betgara Deba bbar Elgetbar Errentenn
Eskonatza Hermate Honclartibia Itun
L. neOna Lergarp Mutliku Pasaa
Tolosa Ufret.1 Zarautz Zumartaga

Ikastaro trinkoak Uztailean.

Alemanez, trantsesez eta ingelesez (maila guztiak).

Uztailearen 3tik 21era goizez eta arratsaldez.

Izen ematea ekainaren 15a balno lehen (plaza mugatuak).

Informazioa:
Tel.: 943 74 40 40
Faxa: 943 74 16 54
E-maila: ils@jet.es

**HIZKUNTZA
IKASTAROAK
ATZERRIAN**
(alemana,
frantsesa,
ingeleza)



Hizkuntz Soluzioak



IMH Eraikuntza
San Roke Auzoa 1 - Posta Kutxatila 37
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)




NISSAN

ALDIBI AUTOAK, S.A.

Zr°teko

"NISSAN ALMERA BERRIA. GOZATU IBILBIDEA"



Aldi bi

Olaso kalea, 23
20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 20 37
Faxa: 943 74 35 24

Zigarrula, 1
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 20 02
Faxa: 943 79 65 65